

## Gazteen parte-hartzea sustatzeko proposamenak

- Gazteen parte-hartzearen alorreko proiektu pilotuak dira, asko Urbact programaren baitan garatuak eta sarituak
- EGK-k *Parte-hartzea European* txostenean hainbat joera eta metodologia pilatu ditu

*Bilbon, 2019ko abenduaren 17an.* Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) *Parte-hartzea European* txostena aurkeztu du gaur goizean. Maialen Olabek, EGK-ko presidentek, azaldu duenez asmo nagusia “European arrakastatsuak izan diren parte hartzeko modu edo esperientzia ezberdinak” erakustea da. “Egun gazteriak parte hartzeko dituen joerak aztertu ditugu eta analisiaren emaitzak biltzen dira txostenean, baita hainbat joera eta metodologia berritzaile ere”, azpimarratu du Olabek.

EGK-ko presidentek nabarmendu duenez txostenaren asmoa “European arrakastatsuak izan diren eredu eta esperientziak biltzeaz gain hauen gaineko informazio osatua eskaintzea da”. Zehazki, administrazioek eta erakundeek parte-hartze hori sustatzerakoan jokatu beharreko rola jaso da, besteak beste Europako Komunitateen Batzordeak hainbat gazte eta aditu kontsultatu ondoren garatutako *Bultzada berri bat Europako gazteentzat* liburu zuria oinarri izanda.

“Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak ia 60 elkarte batzen ditu eta bere funtzioa gazte, gazte-elkarte eta administrazioen artean zubi-lana egitea da”, gogorarazi du Olabek. Bide horretan, gizartea eta parte-hartze ereduak aldatu direnez, helburua betetzeko aro berrira egokitzea beharrezkotzat jo du EGK-ko presidentek.

Horretarako, Olabek zehaztu duenez, fokua European jarri da. “Gazteen parte-hartzearen alorreko proiektu pilotuak dira, asko Urbact programaren baitan garatuak eta sarituak izan dira. Gazte, gazte-elkarte, norbanako zein administrazioentzat baliagarriak izango dira.”

Era berean, egoera kolpez aldatzeko zailtasunak aurreikusita eta helburua lortzeko pausuak emateko aldera, prozesu parte-hartzaile bat sortzerakoan aurrez kontuan izateko hainbat urrats identifikatu dira: zergatik egin nahi den, zertarako, nortzuk parte hartuko duten, zer jokoa erabakitzen, nola, noiz, non eta zer baliabiderek.

### Joera eta metodologia berritzaileak

Euskadiko gazteen parte-hartzea sustatzeko tresna eta esperientziak eskaintzea da asmoa. “Gizartea etengabe aldatzen ari da, baita parte-hartzea ere. Horregatik da garrantzitsua metodologia berriak erabiltzea”, adierazi du EGK-ko presidentek. Jarraian, Olabek European barrera erabilitako hainbat joera berri eta metodologia aurkeztu ditu agerraldian:

- World Café: parte-hartzaile bakoitzari onurarik handiena eskaintzea helburu duen prozesu sinplea. Muina gizabanako bakoitzak ideia handi bat sortzeko ahalmena duela da. Giro

atseginean partekatzea mahai batetik bestera joateko izanda, ideia-truke eraikigarriak sortzeko.

- Giza liburutegiak: beste baldintza batzuetan hitz egingo ez zuten pertsonen arteko elkarrizketa sustatzeko tresna. Gizarte-kohesioa oztopatzen duten aurreiritzi eta estereotipoak apurtu nahi ditu, modu erraz batean.
- Beer & Politics: saioak gehien dakien jendearengandik gauza berriak ikasteko eratu ziren, baina baita hitzaldian eta beraren ostean sorturiko elkarrizketen bitartez harremanak sortzeko ere.
- Sare sozialak: Sare sozialen bitartez, gazteek proposamenak sortzen dituzte eta interesatzen zaizkien gaietan parte hartzen dute.

EGK-ko presidenteak azaldu duenez proiektu hau Eusko Jurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bilboko Udalaren laguntzarekin egin da eta datorren hiletan eragile ezberdinei aurkeztea da asmoa.

**Informazio gehiagorako:**

943429767 / 688675932 (Jon)

[komunika@egk.eus](mailto:komunika@egk.eus)